# ZAZPI PIEZA HISTORIKO / SIETE PIEZAS HISTÓRICAS



**1**

### Zalditeria arineko sablea

Francisco Espoz y Minarena izan zen (1781-1836). Espoz y Mina armada-buru izan zen Independentzia Gerran, Fernando VII.aren (1784-1833) erregimenari aurka egin zion eta, hala ere, Isabel II.aren (1830-1904) tronuaren defentsan karlisten kontra borrokatu ziren osteen buru izan zen. Ezpata hau pertsonaiaren izaera militarraren sinboloa da, pertsona askok aberriaren eta idealen defentsa egiteko armak hartzeko landa-eremuan eguneroko zereginak alde batera utzi zituzten testuinguru batean.

### Sable de caballería ligera

Perteneció a Francisco Espoz y Mina (1781-1836), que comandó los ejércitos en la Guerra de la Independencia, se opuso al régimen de Fernando VII (1784-1833) y, sin embargo, lideró las tropas que combatieron contra los carlistas en defensa del trono de Isabel II (1830-1904). Esta espada simboliza el carácter militar del personaje en un contexto en el que muchas personas abandonaron sus quehaceres diarios en el ámbito rural para empuñar las armas en defensa de la patria y de los ideales.

*XIX. mendearen lehen herena. Karlismoaren Museoko bilduma / Primer tercio del siglo XIX. Colección del Museo el Carlismo*



**2**

### Karlos Maria Isidro infantearen erretratua

Vicente López margolariak (1772-1850) egin zuen, eta Fernando VII.a erregearen anaia irudikatzen du, Espainiako infante moduan. Alderdi absolutistak Espainiako tronurako alternatibatzat jo zuen Karlos Maria Isidro (1788-1855) 1820ko hamarkadatik aurrera. Isabel II.a jaiotzeak eta Berrespen Pragmatikoa promulgatzeak –Lege Salikoa indargabetu zuen, haren arabera tronura gizonen ondorengotza-lineako kideak baino ezin baitziren iritsi– matxinada ekarri zuten berekin, erregea hiltzean lehen karlistaldia hasi zuena.

### Retrato del Infante Carlos María Isidro

Realizado por el pintor Vicente López (1772-1850), representa al hermano del rey Fernando VII como infante de España. Carlos María Isidro (1788-1855), fue considerado desde la década de 1820 la alternativa al trono de España por el sector absolutista. El nacimiento de Isabel II y la promulgación de la Pragmática Sanción, que abolía la Ley Sálica, por la cual el trono quedaba reservado únicamente a la línea sucesoria masculina, motivaron la rebelión que dio comienzo a la primera guerra carlista a la muerte del monarca.

*1820ko hamarkada. Pradoko Museoko gordailua / Década de 1820. Depósito del Museo del Prado*



**3**

### Karlos V.aren Armadaren Jeneral Gorenaren Bandera edo Errege-estandartea

Estandarte edo zutoihal hau, karlismorako esanahi handikoa dena, 1833ko kanpainaren hasieran brodatu zuen Bragantzako Maria Frantziskak (1800-1834), Borboiko Karlos Maria Isidroren lehen emazteak. 1835ean Jeneral Gorenaren tituluarekin erregegaiak adierazia, lehen karlistaldiaren ondoren, Bragantzako Maria Teresak (1793-1874), Beirako printzesak, bigarren emazteak, berreskuratu egin zuen, zaindu eta Karlos VII.ari eman zion 1872-1876ko gerran. Errege horrek "Zaldizko Guardien Errege Gorputzari" eskaini zion.

### Estandarte Real o Bandera Generalísima del Ejército de Carlos V

Este estandarte, que posee una gran significación para el carlismo, fue bordado a principios de la campaña de 1833 por María Francisca de Braganza (1800-1834), primera esposa de Carlos María Isidro de Borbón. Declarado por el pretendiente con el título de Generalísimo en 1835, tras la primera guerra carlista fue recuperado por María Teresa de Braganza (1793-1874), princesa de Beira, su segunda esposa, que lo custodió y lo entregó a Carlos VII en la guerra de 1872-1876, quien lo ofreció al "Real Cuerpo de Guardias a caballo".

*1833. Alderdi Karlistaren gordailua / 1833. Depósito del Partido Carlista*



**4**

### Lakarko karga

Enrique Estevan y Vicentek sinatua (1849-1927), antza denez Karlos VII.aren aginduz (1848-1909), Lakarko guduaren eszena bat irudikatzen du, 1875eko otsailaren 3an gertatu zena. Hain zuzen, oste karlistek armada liberalekoak ezustean harrapatu zituzten, Alfontso XII.a bera buru zutela, eta atxilo hartzeko zorian egon zen. Estevan y Vicente kausa karlistaren aldekoa zen, eta Karlos VII.aren beraren erretratua egin zuen 1880an. Margolan hori ere museoan dago ikusgai, eta bai "Attila" motako uniformeko jaka ere, erregegaiak aipatutako gudu horretan jantzi zuena.

### Carga de Lácar

Firmada por Enrique Estevan y Vicente (1849-1927), al parecer por encargo de Carlos VII (1848-1909), representa una escena de la batalla de Lácar, que tuvo lugar el 3 de febrero de 1875, en la que las tropas carlistas sorprendieron a las del ejército liberal, lideradas por el propio Alfonso XII, que a punto estuvo de ser apresado. Estevan y Vicente simpatizó con la causa carlista y retrató al propio Carlos VII en 1880, pintura que también se exhibe en el museo además del dolmán tipo "Attila" que vistió el pretendiente en la mencionada batalla.

*1886. Karlismoaren Museoko bilduma / 1886. Colección del Museo del Carlismo*



**5**

### Pontifize-zuaboaren uniformea

Borboiko Alfontso Karlosena (1849-1936) izan zen, Karlos VII.aren anaiarena. Zehazki, karlismoaren lidergoa izan zuen 1931 eta 1936 artean. Zuaboen gorputzeko kide gisa, Pontifize Estatuen defentsan parte hartu zuen 1860an, eta, gero, gorputz militar hori oste karlistetan sartu zuen 1872-1876ko gerran. Zuaboen jatorria Aljeriaren konkistan dago, 1830ean. Hain zuzen, Frantziako armadaren barnean gelditu ziren, infanteriako gorputz moduan.

### Uniforme de Zuavo Pontificio

Perteneció a Alfonso Carlos de Borbón (1849-1936), hermano de Carlos VII, que ostentó el liderazgo del carlismo entre 1931 y 1936. Como miembro del cuerpo de zuavos, participó en la defensa de los Estados Pontificios en 1860 e incorporó posteriormente este cuerpo militar a las tropas carlistas en la guerra de 1872-1876. El origen de los zuavos se sitúa en la conquista de Argelia en 1830, quedando incorporados al ejército francés como cuerpo de infantería.

*1860 aldera. Alderdi Karlistaren gordailua / Hacia 1860. Depósito del Partido Carlista*



**6**

### Erreketeen ofizialaren uniformea

Renato Sáez Bermejorena izan zen, Oriamendi tertzioko komandantearena. Alkandoran, Elkarte Tradizionalista Karlistaren ikurra du, mailaren intsignia bat, Bihotz Sakratuaren irudia eta Detente, bala idazkuna duen oihal-ebakina, eta Nafarroako Armadaren 61. dibisioaren ikurra. Oro har, erreketearen militar-itxurako irudiaren eta unibertso ideologiko eta deboziozko bereziaren laburpena da.

### Uniforme de oficial de requetés

Perteneció a Renato Sáez Bermejo, comandante del Tercio de Oriamendi. Presenta en la camisa el emblema de la Comunión Tradicionalista Carlista, una divisa de rango, un detente bala con la imagen del Sagrado Corazón y el emblema de la 61ª división del Cuerpo del Ejército de Navarra. En su conjunto, es un compendio de la imagen marcial del requeté y de su particular universo ideológico y devocional.

*1936-1939. Jaureguízar Fundazioaren gordailua / 1936-1939. Depósito de la Fundación Jaureguízar*



**7**

### Karlos Hugoren aurkezpena Montejurran

Ignacio Ipiña Azcunagaren lana (1932-2010). Karlos Hugo Borboi-Parmakoaren (1930-2010) aurkezpena erakusten du, Jabier Borboi-Parmakoaren semearena (1889-1977), Montejurrako gailurrean, 1957ko maiatzaren 5ean. Estilo zirriborratua duela, Karlos Hugoren eta haren arreben inguruko jendetza-irudipena erreproduzitzen du, Kristo Beltzaren haitzuloaren aurrean.

### Presentación de Carlos Hugo en Montejurra

Obra de Ignacio Ipiña Azcunaga (1932-2010), muestra la presentación de Carlos Hugo de Borbón Parma (1930-2010), hijo de Javier de Borbón Parma (1889-1977), en la cumbre de Montejurra el 5 de mayo de 1957. Con un estilo abocetado, reproduce la sensación de gentío en torno a la figura de Carlos Hugo y de sus hermanas, delante de la gruta del Cristo Negro.

*1957. Karlismoaren Museoko bilduma. Ramón Massóren donazioa / 1957. Colección del Museo del Carlismo. Donación de Ramón Massó*

DL/LG: NA 895-2019

# KARLISMOAREN MUSEOA / MUSEO DEL CARLISMO

## 1. solairua / Planta 1

- Karlismoa, mugimendu historiko gisa / El carlismo como movimiento histórico
- Erregimen zaharraren krisia eta karlismoa eratzea / La crisis del antiguo régimen y la formación del carlismo
- Lehen karlistaldia / Primera guerra carlista
- Gerren arteko aldia, 1845-1872 / Período de entre guerras 1845-1872
- Bigarren karlistaldia / Segunda guerra carlista
- Artea gerran / El arte en la guerra
- Karlismoa mendeen artean / El carlismo entre siglos
- Bigarren Errepublika (1931-1936) / La segunda república (1931-1936)
- Gerra zibila (1936-1939) / La guerra civil (1936-1939)
- Trilemaren piezen bila (1939-1957) / En busca de las piezas del trilema (1939-1957)
- Francorekin edo haren aurka (1955-1968) / Con o contra Franco (1955-1968)
- Karlismoa, tradizionalismoaren eta Francoren erregimenaren oposizioaren artean (1968-1977) / El carlismo entre el tradicionalismo y la oposición al régimen de Franco (1968-1977)

- Dokumentazio-zentroa / Centro de documentación
  Kontsultak, aurretik hitzordua eskatuta / Consultas previa solicitud de cita.
  (948552111 – museo.carlismo@navarra.es)

## 0 solairua / Planta 0

- Harrera-lekua. Zaindegia / Recepción. Consigna
- Aldi baterako erakusketen aretoa / Sala de exposiciones temporales

## -1 solairua / Planta -1

- Hitzaldietarako aretoa / Sala de conferencias




1. Zalditeria arineko sablea / Sable de caballería ligera
2. Karlos Maria Isidro infantearen erretratua / Retrato del Infante Carlos María Isidro
3. Karlos V.aren Armadaren Jeneral Gorenaren Bandera edo Errege-estandartea / Estandarte Real o Bandera Generalísima del Ejército de Carlos V
4. Lakarko karga / Carga de Lácar
5. Pontifize-zuaboaren uniformea / Uniforme de Zuavo Pontificio
6. Erreketeen ofizialaren uniformea / Uniforme de oficial de requetés
7. Karlos Hugoren aurkezpena Jurramendin / Presentación de Carlos Hugo en Montejurra

### Museoa bisitatzen ari zarela / En su visita al museo

- Zalantzarik baduzu, galdetu aretoetako zaintzaileei. Gustura aski erantzunen dizute / En caso de duda, pregunte al personal de sala. Estarán encantados de atenderle.
- Lagundu iezaguzu hobera egiten. Zure iritzia eman nahi badiguzu, iradokizunen orriak erabili ditzakezu, harreralekuan dituzunak eskura, edo gure web-orria baliatu / Ayúdenos a mejorar. Puede dejarnos su opinión en las hojas de sugerencias disponibles en recepción o través de nuestra Web.
- Karlismoaren Museoa gustatu bazaizu, gomendatu ezazu. Zure lagunek eskerrak emanen dizkizute / Si le ha gustado el Museo del Carlismo, recomiéndelo. Sus amigos se lo agradecerán.

### Gehiago jakiteko / Para saber más

www.museodelcarlismo.navarra.es museo.carlismo@navarra.es #MuseodelCarlismo

KARLISMOAREN MUSEOA MUSEO DEL CARLISMO

SISTEMA DE MUSEOS DE NAVARRA NAFARROAKO MUSEOEN SISTEMA

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra